

 www.muskiz.org

 /MuskizUdala

 @muskiz

 @muskizudala

 Muskiz Udala-Ayuntamiento

MUSKIZ ALDIZKARIA

/ 36. aldizkaria
2021eko urtarrila

BI-1640-2017 LG zk.



*Herriko
merkataritzarako
eta ostalaritzarako
laguntza-plana*

/5. orria

***Tokiko 2030
Agendaren
Ekintza Plan
berria***

/2. orria

***Nagusien
Udal Zentroa
eraberritu
egingo da***

/3. orria

***Kobarongo
zemalekua
eta tunela
berreskuratzea***

/4. orria

***Aingeru Setien,
halterofiliako
txapelduna***

/6. orria

Editoriala

Bide zailek leku ederretara eramaten gaituzte

Amaitzear dagoen urte honetan, gure bizimoduak (osasuna, ekonomia, merkataritza, enplegua, aisialdia, sozializatzeko erak...) eraso gogorra jaso du: gaur arte inoiz ezagutu gabekoa. Amesgaizto honek denok ito gaitu uneren batean, baina bizitzaren muina ez da karta onak edukitzea, dauzkagunekin ongi jokatzeko baizik. Urtea proiektu askorekin hasi genuen (bideak, parkeetako estalkiak, Meatzariko estalkia, jasangarritasunean inbertsioak, ibilbideak naturan zehar...). Horietako zenbait gelditu egin behar izan dira, aurreikusitako beste kontu batzuei arreta emateko (gizarte-, merkataritza- eta ostalaritza-laguntzak areagotzea, garbiketarak sendotzea, osasun-gomendioak betetzea...); beste zenbait egin ahal izan dira: udako igerilekuak eta padel-pistak.

“Zorionak eta urte berri on!”

Behar berrietara egokitzeko helburua lortzeko, pasioz, motibazioz eta jarraitutasunez egin dugu beharra. Muskiz aktibo egon da eta herri solidarioa izan da: biztanle partikularrak, elkarteak, enpresak, Udala, Babes Zibileko taldea... hainbat ekintzatan lankide izan gara: elikagai-bilketan, babeserako materialak lagatzen, kaleko aisia- eta kirol-jardueretan, etab. Denon zeregina izan da berrasmatzea eta egokitzea. Herri honekin harro nago: une zailetan tinko iraun dugu.

Datorren urte berriak ez dakigu zer ekarriko digun. Espero eta nahi dut lehena go edo geroago denok gure gurariak bete ahal izango ditugula eta berriz elkartu ahal izango garela.

Besarkada estu bat.

Borja Liaño Abarrategi
Muskizko alkatea



Muskiz Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plan berria eratzen hasiko da

Muskizko Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, Tokiko 2030 Agendaren Ekintza Plan berria eratzeari hasiera eman dio, udalerrriaren hurrengo zortzi urteetarako. Plan horren jomuga giza garapena bultzatzea da, arlo sozialean, ekonomikoan eta ingurumenaren arloan. Planean, hiritarren, elkartearen, kirol-kluben eta abarren ekarpenen bidez, Muskizko udalerria nolakoa izatea nahi den jasoko da, zortzi urteko aurreikuspena eginez; hori dena, Garapen Iraunkorreko Helburuak erreferentziatzat hartuta.

COVID-19ak sortutako egungo egoera kontuan hartuta, hainbat bide erabiliko dira parte-hartze prozesua nola antolatuko den komunikatzeko. Gainera, Muskizko

Udalak 2030eko Agenda Bloga zabaldu du, <https://sites.google.com/view/agenda-2030localmuskiz/inicio>, herritar guztiei zuzenduta. Horren bidez hedatuko du prozesuari buruzko informazio guztia.

Hainbat ekintza gauzatuko dira; horietan, herritarren parte-hartzea funtsezkoa izango da. Muskizko eragile sozial eta ekonomikoekin elkarrizketak egingo dira, baita herritarrek parte hartzeko foroak ere (6 diagnostiko-faserako eta beste 6 ekintza-planerako). Gainera, parte hartzeko foro bat egokituko da, galde-sorta elektronikotan oinarrituta, eta udalerriko toki jakinetan kokatutako 6 gutunontzi. Horietan, arestian adierazitako bi faseei dagozkien galdeketa sartu ahal izango dira.

Muskizko Udalak 1.000.000 euro beherantz doitu ditu sarrerak, COVID-19aren ondorioz

COVID-19tik eratorritako krisi ekonomiko eta sanitarioa hainbat ondorio negatibo uzten ari da gizartean, osasunaren eta egitura sozioekonomikoaren alderdian. Hala, bertako administrazioak ere eragin hori pairatu du, batez ere zerga-bilketan. 2020. urte honetan, Udalak 14.000.000 euro inguruko sarrerak aurreikusten zituen, baina sarrera horiek ez dira aurreikusitakoaren arabera gertatzen ari. Hori dela eta, sarrerak 1.000.000 euro beherantz doitu beharrean aurkitu da. Hala, konprometitu gabe zeuden lehentasunik gabeko zenbait gastu eta inbertsio ez gauzatzeko konpromisoa hartu behar izan du.

Egoera hau gorabehera, Udalaren lehentasuna bertako biztanleak dira. Ekintzen artean, 1.000.000 euroko partida bat bideratuko da arriskuan dauden familien behar sozialei eta udalerriko egitura ekonomikoaren beharrei aurre egiteko. Kopuru hori indarrean da, eta, gainera, gobernu-taldeak konpromiso irmoa du arazo hauetarako baliabideak urri ez erabiltzeko. Gaur arte, partida horren 247.000 euro erabili dira Muskizko 150 autonomorentzat, eta 150.000 euro baino gehiago familien beharri-zanei arreta emateko.



Nagusien Udal Zentroa eraberritu egingo da

C OVID-19ak ekarritako pandemia hasi baino lehen, Muskizko Udalaren Gizarte Ekintza Arloa Nagusien Udal Zentroaren instalazioak egokitzeko proiektu bat lantzen ari zen, guneak, sukaldea, sarbideak, etab. hobetzeko, baita haien antolamendua ere. Horregatik, eta nahiz eta instalazioak arautegia betetzen duen, orain dugun egoerak agerian utzi du zentro soziosanitarioak hobetu egin daitezkeela, modu horretan erabiltzaileentzat eta langileentzat seguruagoak eta erosoagoak bilakatzeko. Aipatutako proiektua 7.400 €-ko zenbatekoarekin (BEZ kanpo) adjudikatu da, eta 2021eko lehen hiruhilekoan aurkeztea aurreikusten da.

Lantzen ari garen proiektuak hainbat ardatz ditu, Arloko arduradunek zentroa hobetzeko nahitaetzotzat jotzen dituztenak. Horietako bat segurtasuna da, ebakuzio-bideez eta euste-baliabideez horniturik, arrisku-egoeren aurrean babesa lortzeko. Egongela, gimnasio eta jangelen gisako guneen antolamendua garrantzitsua da, zabalak eta erosoak izan behar baitute. Beste ardatz bat zentroaren sarreraren eta irteeraren iriste-erraztasuna hobetzea

da, garraio egokituak jasotzen dituen erabiltzaileei begira; era berean, sarrerako igogailuak zabaltzea ere aurreikusten da. Aldi berean, efizientzia energetikoaren arloan lanean ari dira, eraikina energetikoki jasangarria izan dadin. Azpimarratu beharrekoa da plan horrek zentroko langileek adierazitako beharrianak jasoko dituela, baita udal-teknikarien oharpenak ere, eta segurtasunari eta energia-efizientziari buruzko arautegirik gaurkotuenera egokitu dela. Horren ondoren, geratzen den aurrekontuaren arabera, inbertsio horri ekiteko beharrezkoak diren pausoak eman beharko ditu Udalak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak

COVID-19a sortzen ari den krisi sozial eta ekonomikoaren ondorioz, Gizarte Ekintza Arloak %90ean handitu ditu haren eragina arintzeko gizarte-larrialdietarako eman dituen laguntza ez aldizkakoak. Gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, %35 handitu da (210.000 eurotik 285.000 eurora), eta laguntza ez-aldizkakoak (LEA) %300 baino gehiago (15.000 eurotik 65.000 eurora).



Gizarte Zerbitzuen Arloa sendotu egin da enplegu-planarekin

Muskizko Udalak Gizarte Zerbitzuen Arloa sendotu du; horretarako, 8 langile berri kontratatu ditu udalaren enplegu-planaren bitartez. Ekimen honekin batera, laguntasun-programa berri bat txertatu da mendekotasuna duten pertsonentzat, bakartasun-arriskua dutenentzat eta beharrianak duten familientzat. Koordinatzaile batek zuzenduko du programa, eta hurbileko lau laguntzaile izango ditu. Bestalde, COVID-19a dela-eta oinarritzko zerbitzuak sendotzeko, beste psikologo bat arituko da lanean, Muskizko Osasun Zentroarekin zuzeneko harremanetan egongo dena, baita gizarte-langile bat eta administrari bat ere. Zortzi lanpostu horiek 6 hilabeterako izango dira, eta %75eko lanaldian arituko dira.

EELZ (Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua) orduak areagotzea

Udal arautegia gizarte-zerbitzuen eskakizunetara egokitzeak eta zerbitzuak EELZrekin bateratzeak zerbitzuaren ordu kopurua handitzea ekarri du, modu horretan mendekotasuna duten pertsona gehiago artatu ahal izateko. Hala, urteko 13.500 ordutik 19.230 orduko aurreikuspena igaro da. Joan den urtean zehar, EELZk 75 pertsona artatu zituen Muskizen. Batez beste, hilean 64 zerbitzu egin ziren; gutxienez hileko 62 zerbitzu izan ziren, eta gehieneko, berriaz, 65. Guztira, urte osoan 14.005,50 ordu egin ziren.



Muskiz, Gabonetan ere, solidario

“Gaboneman”-ek helburua bete zuen: 124 saski banatu ziren eta elikagai eta higieneproduktuen 3.000 kg baino gehiago bildu ziren. Guztira, 236 saski eman ziren.



PCR probetarako moduluak instalatzea

Muskizek baditu, joan den urriaz geroztik, aldi baterako modulu batzuk PCRak egiteko; horrela, udalerriko Osasun Zentroan toki gehiago izango da.

Aparkalekuak berriz margotzea

Joan den hilean, udalerriko zenbait aparkaleku berriz margotu dira. Horren bidez, iriste-erraztasuna hobetu nahi izan da, baita toki kopurua handitu ere. Horien artean, Antonio Trueba eta Cendeja kaleetakoak aipa daitezke.



Ping-pong mahaiak Artekalean

Udalak Artekaleko jolas-parke zaharrean bi ping-pong mahai jarri ditu.



Kobarongo gazteluaren zamalekuko ingurua eta tunela berreskuratzea

Azken urteetan, Muskizko Udalaren Kultura Arloak Kobarongo meatzaritzari eta bertako zamalekuari buruzko azterketan eta dokumentazioan lan egin du. Eusko Jaurlaritzak udalerriko ondarearen elementuak berreskuratzeko eman duen laguntza ekonomikoari esker gauzatu da egitasmoa. Horrelako azterlanek Muskiz-ek daukan itzelezko ondare-, kultura- eta historia-balioan sakontzen lagundu dute. Azken urte hauetan, hainbat hobekuntzalan egin dira bideen inguruetan, hesietan, hiri-altzariak jartzen, eta abar.

Orain, 2020an, berriz ere Donejakue bideko eta Muskizko meatze-barrutietan babestutako ondarearen elementuak berreskuratzeko lanean dihardugu. Horretarako, bi lan esleitu dira: Kobarongo gazteluaren zamalekuko Robin2 zintaren ingurua leheneratzea, eta tunela leheneratzea. Denak 77.928,73 euroko kostua dauka. Egintza nagusiak Cons-

trucciones Garmendiak eta Miramar Gunitadosek egingo dituzte, hurrenez hurren; eta hauek dira: inguruan dauden elementu itsusgarriak garbitzea eta kentzea, arriskuan leudekeen ondare-elementuak sendotzea eta haien balioa azpimarratzea, baita horiek interpretatzeko laguntza ematea ere. Egintzak honako guneetan aurreikusi dira: Robin2 zintaren karga-egituran eta ur-deposituan, 1. faseko horman eta zamatzetunelean.

Azpimarratu behar da, kostu handia zutela-eta, eraikinak eta zamalekua bera berreraikitzeke lanak baztertu egin direla; dena dela, gehiago narriatzea saihesteko eta karga-egiturak, hormak, etab. erortzea saihesteko lanean ari dira. Lan horiek Ondartez enpresak gazteluaren zamalekuaren balioa azpimarratzeko idatzitako plan zuzentzaileak zehaztutako lehentasun eta estrategietan sartzen dira.



Villanueva birgaitzea

Muskizko Udalak Villanuevako bidea lehengoratzeko lanak hasi ditu, egoera txarrean baitzegoen. Hala, Udalak 38.977,50 euroko inbertsioa egin du hondatuta zegoen bide hori egokitzeko eta berritzeko. Obrari esker, bide osoa egokitu da, bertako zuloak estali dira eta osorik asfaltatu da.



Herriko merkatari eta ostalarientzako laguntza-plana

C OVID-19aren pandemia ekarzen ari den krisi ekonomikoaren ondorioz, udalak bide berriak jorratzen ari dira pertsonarik kaltetuenei laguntzeko. Hala, Muskizko Udala hiru ekintza-lerro dituen laguntza-plan batean sartuta dago, egitura ekonomikoari laguntzeko eta hura indartzeko.

Lehenik, ostalaritzari laguntzeko, itzuli beharrik gabeko 70.000 euro ezarriko ditu Udalak. Honako kafetegi, taberna eta jatetxe hauei bideratuta dago: jarduera eraikin finkoetan egiten dutenak, publikoari begira, egunerokoan eta profesionalki janariak eta edariak bertan kontsumitzeko eskainiz. Gomutara ekarri beharreak da zuzeneko laguntza honek Eusko Jaurlaritzarenak osatuko dituela eta horren banatze-irizpide berberak izango dituela. Hori dela eta, langile bat eta hiru artean dituzten Muskizko establezimenduek 800 euro jasoko dituzte; lau eta hamar artekoek, berriz, 1.100 euro, eta hamar baino gehiagokoek 1.400 euro.

Bigarren ekintza-lerroa bertako merkataritza sustatzeko laguntzei bideratuta dago.

Udalak, FORLANen eta Muskizko Merkatarari eta Profesionalen Elkartearen laguntzarekin, Merkataritza Bonua kanpaina jarri du martxan, eta hala dio: "Muskizko dendetan erosteak abantailak ditu". Kanpaina hori indar handiagoaz dator, herrian bertan erostea bultzatzen jarraitzeko; denera, 6.500 bonu daude erabilgarri. Ekimen honen eragin osoa, bertako ekonomian, 105.000 eurokoa izango da.

Hiru bonu mota egin dira. Lehenik, ostalaritza-bonua: kontsumitzaileak 10 euro gastatuko ditu 15 euroko erosketan. Bigarrenik, elikagai-dendetan, farmazietan, tabako dendetan eta albaitariarenean erabiltzeko bonua: 10 euroko gastua, 15 euroko erosketan. Azkenik, gainerako merkataritza-zentro eta jardueretako bonua: 10 euroko gastua, 20 euroko erosketan. Kanpaina hau maiatzaren 31 arte izango da indarrean.

Musukoak banatzea

Udalak Muskizko Merkatarien Elkarteari 6.000 euroko laguntza eman dio bezeroen artean musukoak bana ditzan.



Enplegu-plana: 24 lanpostu berri

Muskizko Udalak, Lanbideren laguntzarekin, enplegu-plan berri bat jarri zuen martxan. Hala, iraupen luzeko langabezian zeuden udalerriko 24 pertsona kontratatatu zituen, 6 hilabeterako, % 75eko kontratu batekin. Programa hori Lanbideren (enplegu zerbitzu publikoa) eta Udalaren artean finantzatuta dago. Hurrenez hurren, 280.843,93 € eta 49.131,99 € jarriko dituzte; hori dela eta, hautagai guztiak zerbitzu publikoan lan-eskatzaileria gisa alta emanda egon behar zuten. Euskal Enplegu Zerbitzuari (Lanbide) egokitu zitzaion, izena eman zutenen artean, hautagai-zerrenda bat egitea, lan-munduan txertatzeko zailtasunik handienak zituztenen artean. Horren ostean, Forlan Tokiko Garapen Agentziak, Udaleko arlo bakoitzeko arduradunekin batera, Lanbidek proposatutakoan artean hautagairik egokienak iruditu zitzaizkionak hautatu zituen.

2021erako zergen izoztea onartuta

Muskizko Udalak udal-tasa eta zergak izoztu ditu 2021erako; horrela, bertako biztanleek ez dute zergetan gehiago ordaindu behar. Akordio hau onartzeko bi alderdi hartu dira kontuan: hiritarrak nozitzen ari diren osasun-krisiarekin koherente eta arduratsu izateko premia, eta eskatzen diren eta behar-beharrezkoak diren zerbitzuak bermatzen jarraitzea.



MUSKIZ KULTURA AGENDA

URTARRILAK 3-5	Errege Magoak
MEATZARI ARETOA	Harrera
Igandea 3	17:00-20:00
Astelehena 4	17:00-20:00
Asteartea 5	11:00-14:00





Elkarrizketa



Aingeru Setien, halterofiliako txapelduna

Nahiz eta kirol minoritarioa izan, eta praktikatzen dutenengandik kanpo ez oso ezaguna, Muskizek bere tokitxo egin du mundu honetan, Aingeru Setien muskiztarri esker. Halterofiliaz ari gara berbetan. Sakrifizioa eskatzen duen kirol minoritario honi Setienek ahotsa eman nahi dio, eta bere tokitxo egin; izan ere, “ez da indarra behar den gauza bakarra: abiadura, mugikortasuna eta teknika ere behar dira”, eta, zenbaitetan, jendeak beste ikuspegi bat izaten du. Gure bizilagun honen eskutik, halterofilia zer den gertuagotik ezagutuko dugu.

G/ Nola heldu zen Aingeru halterofiliaren mundura? Kirol hau hurbiletik ezagutzen ez dutenentzat, zertan datza?

E/ Halterofilian CrossFitari esker hasi nintzen, horren parteetako bat jasotze olinpikoa baita. Halterofilia bi mugimenduz osatua dago: abiada eta bi denborak; bi mugimenduen artean ahalik eta kilo gehien jasotzeko ahalegina egiten da.

G/ Gogoan izan dezagun orain dela hila-bete batzuk bi zilarrezko domina lortu ze-

“Ez da indarra bakarrik: abiadura, mugikortasuna eta teknika dira garrantzi handiena dutenak

nituela Espainiako Txapelketan. Lan eta entrenamendu asko egin behar al da hori lortzeko? Nolako izaten da prestakuntza?

E/ Entrenamendua urte osokoa bezalakoa da. Astean bost edo sei egunetan; hala ere, azken hilabeteak askoz ere gogorragoak izan ziren, bereziki Espainiako Txapelketara bideratu baikenituen. Astean hiru teknika- eta indar-saio egiten ditugu, eta beste bizpahiru CrossFitokoak, pisuan mantentzeko.

G/ Zein da jasotzea lortu duzun pisurik handiena?

E/ Nire markarik onenak hauek dira: 127 abiatzean, orain dela gutxi entrenamenduetan egina, eta 166 bi denboretan.

G/ Gutxi entzuten den kirola izatean, zein zailtasunekin topatzen zara lehiatu ahal izateko?

E/ Kirol minoritarioa izan arren, Federazioak emandako laguntza ona iruditu zait; hala ere, beste zenbait erkidegotan laguntzak askoz ere handiagoak izaten dira. Kirol hau, CrossFitari esker, ikusgarri bilakatzen ari da, eta, probatzen baduzu, asko engan-

txatzen du. Ez da indarra bakarrik: teknika, abiadura eta mugikortasuna dira garrantzi handiena dutenak.

G/ Zein da Aingeru Setienek buruan duen hurrengo erronka?

E/ Hurrengo erronka otsailean CrossFit open 2021en parte hartzea da.

G/ Zer ematen dizu, pertsonalki, kirol hau egiteak?

E/ Halterofilia lasaigarri ederra da. Entrenatzen ari zaren denbora-tarte horrek gainerakotik deskonektatzen laguntzen dizu, eta ni, pertsonalki, etxera nekaturik itzultzeak asko erlaxatzen nau.

G/ Zein aholku emango zenioke horretan hasi nahi duenari?

E/ Edozein pertsona, gaitasun fisikoa eta adina gorabehera, has daiteke kirol honetan. Garrantzizkoa da beldurrik ez izatea, eta indarririk ez duela ez pentsatzea ere bai. Dena entrenatuz lortzen da, eta behin eta berriz errepikatuz, kirol honetan teknika indarra baino garrantzitsuagoa baita.



Olentzero eta Mari Domingi Muskizen

Muskizko haurrek, Gabon aurreko egunetan, gozatzeaz gainera, gurariz betetako gutunak utzi ahal izan zituzten, Olentzero eta Mari Domingi Meatzari Aretora hurbildu baitziren.



Euskaraldia kanpainan parte-hartze zabala

Euskara Arloak gogor lan egin zuen Euskaraldia kanpainaren hainbat ekitaldiren inguruan. 311 muskiztarrek hartu zuten parte (195 ahobizi eta 116 belarriprest), baita 25 erakundek ere.